



Lana bilatzeko dosierra



Prestakuntza-ibilbideak

Ekintzailletza

GTP, Merkataritza Ganbera

Enplegu-anezka

Beraktibatu Programa. Novia Salcedo

Investigo Programa. SEPE

PEX. Lehenengo Esperientzia Programa administrazio publikoetan

Gazteentzako finantzaketa-aukerak. Europako Batzordea

Gaztenek Berri Programa. Eusko Jaurlaritza, Aldundia eta Mondragon Unibertsitatea

Lanbide

...

infogaztea@araba.eus - 945 181700 – 670 281700

Arabako Gazteen Dokumentazio eta Informazio Lurralde Zentroa.
Centro Territorial de Información y Documentación Juvenil de Álava.



Gida honetan jasotako informazioa enplegua bilatzeko eta prestakuntza hobetzeko baliabideen hautaketa bat da. Edukiak aipatutako erakundeen webguneetatik aterata daude.

Prestakuntza-ibilbideak

Lanbide Heziketa, Espezializazio ikastaroak LH-n, unibertsitatea.

[Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza saila](#)

[Hutel](#)

[Ikaslan](#)

[Instituto Foral de la Juventud. Itinerarios formativos](#)

[Ferias para Estudiantes](#)

[Salón Europeo de la Formación y Empleo](#)

Profesionaltasun Ziurtagiriak

Profesionaltasun-ziurtagiriak dira lan-administrazioaren eremuko lanbide-kualifikazioak ofizialki egiaztatzen diren tresna. Ziurtagiri horiek izaera ofiziala dute eta Estatu osoan balio dute, eta lan-jarduera bat garatzeko gaitasuna ematen duten lanbide-gaitasunak egiaztatzen dituzte.

[LANBIDE](#)

[Repertorio de Certificados](#)

[SEPE](#)

Formakuntza osagarria

Zuen gaitasunak osatzeko prestakuntza eskaintzen duten erakundeak, enpresak eta programak.

[Arabako Foru Aldundia. Formakuntza Plana](#)

[Vitoria-Gasteizko Udala. Enplegurako Prestakuntzako Urteko Plana](#)

[Arabako Ganbera](#)

[Kztagunea](#)

[Fondo de Formación](#)

[Saregune](#)

[IkasVital](#)

[Hizkuntza akademiak](#)

[Sartu](#)

[Lanbide](#)


[Instituto Europa](#)

[FOREM](#)

[SEA, Arabako enpresak](#)



Hezkuntza sistema arautua



Ekintzailletza



Erakunde hauetan baliabideei buruzko informazioa topatu dezakezu:

CEIA

SPRI taldea

Arabako Merkataritza Ganbera

Lanbide

SEPE

Arabako Foru ALdundia

Gaztenpresa


Vitoria-Gasteizko udala

Araba, Garapen Agentzia

Gazte Talentua Programa, Merkataritza Ganberakoa

Gazte Talentua Programa

Informazioa Arabako merkataritza Ganberatik aterata



Lanean hastea nahi?

Arabako Ganberan, ordaindutako bekak, lan-poltsa eta doako prestakuntza eskaintzen dizkiegu lana bilatzen ari diren 30 urtetik beherako gazteei.

Gazte Talentua programak, Europako Gizarte Funtzak (EGF) finantzatuta, parte-hartzaileei **doako prestakuntza, enplegu-poltsa, beka ordainduak eskaintzen dizkie eta enpresei pizgarri erakargarriak zure kontratazioa errazteko**. Lana bilatzen ari bazara, programa honek zure **enplegagarritasuna argi eta garbi hobetuko** du; izan ere, lan-merkatuan txertatzeari heltzen diogu hainbat arlotatik eta oso modu praktiko eta errealistan.

Ibilbide espezifiko bat diseinatuko dugu **zure profilaren, kualifikazioaren, interesen eta gaitasunen arabera, enplegu-poltsa** bat dugu enpresak parte hartzen duten gazteekin harremanetan jartzeko, eta, gainera, horiek sustatzen ditugu, kontratatu zaitzaten.

Zure helburua lortzeko prestatzen zaitugu, eskura dituzun tresna guztiak erabiliz. Ikasi hautaketa-prozesu bati, elkarrizketei, curriculumari eta abarri aurre egiten, besteengandik desberdindu, zu zeu izan zaitez **hautatutako pertsona**. Fase honen ondoren, zure helburu profesionalak lortzeko, zure intereseko arloan **prestakuntza espezializatua** (aurrez aurrekoa eta online) aukera dezakezu (60 ikastaro baino gehiago).

Ikaslearentzako **doako ikastaroak** dira eta aurrez-aurreko edo online formatuan egin daitezke. Bi modalitate horiek prestakuntza tronkala dute (65 ordu), enplegagarritasuna, marka pertsonala eta gizarte-trebetasunak lantzen diren, eta berariazko prestakuntza (gehienez 250 ordu), lanpostu jakin baterako prestatuko zaituen.

Enplegu-anezkak

Doako lan-orientazioko programa bat da, langabezian dauden 20 pertsonari lan-merkatu berriarekin bat datozen teknika berriekin lana bilatzen laguntzen diena. Horretarako, teknikari espezializatu baten aholkularitza dute.



Lanzaderas de Empleo webgunetik ateratako informazioa

Anezka bakoitza langabezian dauden hogeit hamar pertsonaz osatuta dago, adin, prestakuntza-profil eta lan-ibilbide desberdinetakoak. Hainbat hilabetetan biltzen dira lan-bilaketa berri bat prestatzeko: berritzailea, proaktiboa, antolatua eta solidarioa.

Borondatez eta doan joaten dira programara. Teknikari espezializatuen laguntzarekin eta aholkularitzarekin, lan-bilaketa suspertzeko jarduera-egutegi oso bat jarraitzen dute: lan-azterketa plan bat garatzen ikasteko adimen emozionaleko dinamikak; curriculumak eguneratzea eta lan-elkarrizketen simulazioak; enplegarritasun-mapak eta enpresekiko kontaktuak, besteak beste.

101 LANZADERAS
OPERANDO EN LA
ACTUALIDAD

Ver todas las Lanzaderas activas

LEES VITORIA- GASTEIZ II 2022

LEES LLODIO 2022

LEES VITORIA-GASTEIZ 2022

LCE BILBAO 2022

Horretarako, Lanbideren eta bi hirietako udalen lankidetzara dago. **Azaroan** hasten da eta **bost hilabete** irauten du. Langabezian dauden 18 eta 60 urte bitarteko gizonak eta emakumeak har dezakete parte.

Edozein ikasketa-maila izan dezakete (DBH, Lanbide Heziketa, Batxilergoa, Unibertsitatea, Masterra, etab.) eta edozein lanbide-sektoretakoak izan, esperientziarekin edo esperientziarik gabe.

Espezialisten aholkularitza izango dute, haien enplegarritasuna eta laneratzea hobetzeko.

Adimen emozionaleko dinamikak egingo dituzte enplegua bilatzeko plan integral bat garatzen ikasteko eta beren helburu profesionala bideratzeko; curriculuma eguneratzeko programa berriak ikasiko dituzte; lan-elkarrizketak probatuko dituzte hautaketa-prozesuetan konfiantza eta segurtasuna irabazteko.

Zeharkako gaitasunak eta trebetasun digitalak indartuko dituzte; Smartphoneari eta sare sozialei etekina aterako diete online enplegua bilatzeko, enplegarritasun-mapak egingo dituzte eta enprekin harremanetan jarriko dira.

<https://www.lanzaderasdeempleo.es/>

infogaztea@araba.eus - 945 181700 – 670 281700

Arabako Gazteen Dokumentazio eta Informazio Lurralde Zentroa.
Centro Territorial de Información y Documentación Juvenil de Álava.



Berraktibatu Programa 2026. Novia Salcedo



Lanbidetik ateratako informazioa

Novia Salcedo Fundazioak (aurrerantzean, NSF) "BERAKTIBATU 2026" programa abiarazten du, Enplegarritasuna hobetuko duten gaitasunak trebatzeko helburuarekin, enpresek eta erakundeek proposatutako banakako prestakuntza-planen bidez, eta Novia Salcedoren lan-mentoreen eta enpresan tutoretza-lanetan trebatutako pertsonaren ikuskaritzapean.

Beraktibatu 2026 langabezian dauden gazteak euskal enpresekin konektatzea bilatzen du esperientzia kualifikatzailea lor dezaten.

Gazteentzako

- 16 eta 30 urte bitartekoak eta Euskadin bizi direnak. (*)
- Lanbiden erregistratua egotea, langabezian edo lan hobekuntza egoeran egotea.
- Ziurtagiri Profesionala, Heziketa-Zikloa, Unibertsitate Gradua, Doktoregotzarekin edo azken urtean egotea.
- Formakuntza alorrean lan esperientzia ez kualifikatua izatea.
- Enpresak eskaintzen duen profiler a egokitutako prestakuntza.
- Titulazio osteko praktika baten edo Berraktibatu programaren onuradun ez izana.

(*) Deialdiko plazak era honetan banatuko dira: 52% Bizkaia, 30% Gipuzkoa eta 20% Álava.

Investigo Programa. SEPE



Ikerketa-erakunde publikoetan, unibertsitate publikoetan, zentro teknologikoetan eta ikerketa-proiektu batean parte hartzen duten beste erakunde publiko eta pribatu batzuetan ikertzaile gazteak kontratatzea estaliko du.

<https://www.sepe.es/HomeSepe/encontrar-trabajo/plan-recuperacion-transformacion-resiliencia/empleo-joven/programa-investigacion.html>

PEX. Lehenengo Esperientzia Programa administrazio publikoetan.

Hezkuntza formala amaitu duten gazte langabeei lehen lan-esperientzia eskainiko die herri-administrazioetan (orokorrekoetan zein lurraldekoetan). Gaitasun ez-teknikoak eta pertsonen arteko gaitasunak eskuratuko dituzte, trantsizio bikoitzarekin, gizarte-laguntzarekin eta lurralde-kohesioarekin lotutako enpleguetan lan eginez. Estatuko Administrazio Orokorreko eta lurralde-administrazioetako erakunde publikoei ematen zaizkie dirulaguntzak.

<https://www.sepe.es/HomeSepe/eu/encontrar-trabajo/plan-recuperacion-transformacion-resiliencia/empleo-joven/primera-experiencia-profesional-administraciones-publicas.html>

Gazteentzako finantzaketa-aukerak. Europako Batzordea

Hezkuntza, formakuntza, gazteria eta kirola

[Erasmus+](#) EBren programa bat da, gazteen gaitasunak eta enplegarritasuna hobetzeko, gazteen ongizatea eta gizarteratzea sustatzeko, eta gazteekin egiten den lana eta gazte-politikak hobetzeko helburua duena, toki-, nazio- eta nazioarte-mailan..



Finantzaketa-jarduerak [Hezkuntza eta Kulturako Europako Agentzia Betearazleak \(EACEA\)](#) kudeatzen ditu modu zentralizatuan edo herrialde bakoitzeko [Agentzia Nazionalak](#).

Ikertzaileentzako Bekak

[Marie Skłodowska-Curie ekintzek](#) diziplina guztietako ikertzaileei irekita daude, larrialdietako osasun-laguntzatik hasi eta ikerketa teorikoraino. [Ikerketa Agentzia Exekutiboak \(REA\)](#) gauzatzen ditu jardura horiek.

Gazte Ekintzaileak

[Ekintzaile Gazteentzako Erasmus](#) ekintzaileentzako truke-programa bat da, eta aukera ematen die hilabete batetik sei hilabetera bitartean beste herrialde parte-hartzaile batean esperientzia duten ekintzaileekin lan egiteko.

Gazte Bolondresak

[Elkartasunerako Europako Taldeak](#) Europako gizartean elkartasuna sendotzea du helburu, gazteak elkartasun-jardura irisgarrietan eta kalitate handikoetan inplikatur. Beren potentziala ikasteko eta garatzeko aukera ematen die, bai eta ideia berri eta inspiratzaileak emateko aukera ere kolaboratzen duten erakundeari. Programak boluntario-jarduerak, enplegua, praktikak eta tokiko elkartasun-proiektuak babesten ditu.

Finantzaketa-jarduerak [Europako Hezkuntza eta Kultura Agentzia Betearazleak \(EACEA\)](#), herrialde bakoitzeko [agentzia nazionalak](#) eta [SALTO-YOUTH](#) sareak kudeatzen dituzte.

Nekazari Gazteak

Nekazari gazteek jasotzen dituzten zuzeneko ordainketen % 25eko ordainketa osagarria jaso dezakete. Ordainketa gehigarri hori, [Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak](#) eskainitakoa, 40 urtetik beherako nekazariantzat da.

Gazteek Landa [Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren](#) esparruan ere jaso dezakete finantzazioa. Landa-garapenerako programa bakoitzean, Funtsak gazteei laguntza emateko neurriak jasotzen dira, herrialde edo eskualde bakoitzaren lehentasunen arabera.

Gazte langabeak

[Gazte Enplegurako Ekimenak](#) % 25etik gorako gazteen langabezia-tasa duten eskualdeetan ikasten edo prestakuntza jasotzen ez duten gazteei laguntzen die. 2021-2027 aldirako, Gazte Enplegurako Ekimena [Europako Plus Gizarte Funtsean \(FSE+\)](#) sartu zen, baina gazteen enplegua azpimarratzen jarraitzen du.

Indartutako [Gazte Bermeak](#) estatu kide guztien konpromisoa adierazten du, 30 urtetik beherako gazteek

- enplegua
- etengabeko prestakuntza
- lanbide-ikaskuntza
- praktikak

Buruzko eskaintza onak jasoko dituzte ikasketak amaitu edo enplegua galdu eta lau hilabeteko epean. [EBko herrialdeetako kudeaketa-agintariak](#) Gazte Enplegurako Ekimenari eta Gazte Bermeari buruzko informazio gehiago eman dezakete, eta programa horiek abiarazteaz arduratzen dira.

Europar Batzordearen webgunetik ateratako informazioa

Gaztenek Berri Programa

Eusko Jaurlaritzak, Aldundiak eta Mondragon Unibertsitatea

Nekazari gazteentzat. Gaztenek programara iristen diren gazte guztien prestakuntza zabaltzea enpresa-kudeaketan, digitalizazioan eta berrikuntzan, bai eta sektorearen eta ingurunearen benetako erronkei eta beharrei erantzuteko jakin-mina eta gogoia piztea ere.

“26 GAZTE SARTU DIRA GAZTENEK BERRI PROGRAMAN, LEHEN SEKTOREA GAZTETZEA ETA MODERNIZATZEA ETA XXI. MENDEKO ERRONKEI AURRE EGITEKO TRESNA BERRIAK EMATEKO HELBURUAREKIN”

Mondragon Unibertsitateko webgunetik ateratako informazioa

Aplikatu den metodologia Mondragon Unibertsitateko MTA (Mondragon Team Academy) da

Orain, Gaztenek Berri programaren ezarpenaren bidez, Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiek, Mondragon Unibertsitatearen asistentzia pedagogikoarekin, Gaztenek programara iristen diren gazte guztien artean enpresa-kudeaketari, digitalizazioari eta berrikuntzari buruzko prestakuntza zabaltzea nahi dute, sektoreko eta inguruko erronka eta beharrei erantzuteko jakin-mina eta gogoia pizteko.

Eta berri honetan, proiektuak gero eta berritzaileagoak izatea lortu nahi da, balio erantsi handiagoa sortzea eta etorkizun-ikuspegia duten pertsonen gidatzea. Gainera, beharrezkotzat jotzen da nekazaritza-ekintzailetzari laguntzeko ekosistema sensibilizatzea eta kualifikatzea, arreta 2023-2027 aldi berrian jarrita.

Gaztenek Berri lehen sektoreko ekintzailetzak motibatutako gazteak bilatzen ditu, ekimenarekin eta taldean esperientzia berriak bizitzeko gogoarekin, tresna, metodologia eta ekimen berritzaileak aurkituz..

Guztira 26 gazte (Arabako 11k, Bizkaiko 6k eta Gipuzkoako 9k) heziketa-erronka berri honetan parte hartzea erabaki dute. Horren helburua da lehen sektorea gatzetzea eta modernizatzea, eta horretarako XXI. mendeko erronka berriei aurre egiteko tresnak eskainiko zaizkie, hala nola, enpresa-kudeaketa, nekazaritza eta abeltzaintza-lanaren digitalizazioa edo arlo horretako teknika eta berrikuntza berriak.

Horrela, ikaskuntza aurkezten diren proiektu ekintzaileetan oinarrituko da, eta prozesua programa baten bidez garatuko da. Programa horretan, besteak beste, online saioak egingo dira, sektorearen problematikak ulertzeko, etorkizuneko joerak ezagutzeko eta berrikuntza-tresnak aurkitzeko. Programa horrek berriak mentoria-saioak ere izango ditu. Horrez gain, “ikasketa-bidaiak” ere egingo dira; lehen sektoreko inguru berritzaileak ezagutzeko esperientziako saioak dira, eta inspiratzeaz gain, kontaktu-sarea handitzen lagunduko dute eta talde-lan dinamika sustatzeko espazio informalek eskainiko dituzte.

infogaztea@araba.eus - 945 181700 – 670 281700

Arabako Gazteen Dokumentazio eta Informazio Lurralde Zentroa.
Centro Territorial de Información y Documentación Juvenil de Álava.



Lanbide

Euskal Enplegu Bulegoa Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Enplegu Zerbitzu Publikoa da.



Enplegurako informazioa, prestakuntza eta orientazioa eskaintzen da, bai eta pertsonen eta enpresen arteko bitartekaritza ere, enplegu-eskaintzak eta eskariak kudeatuz.

Gainera, herritarrentzako zein enpresentzako laguntzak kudeatzen dituzte. [Diru-sarrerak Bermatzeko Oinarritzako Errenta \(DSBE\)](#) eta [Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera \(GGD\)](#) ere kudeatzen dituzte.

Lehen Aukera - Lanbide



Lehen Aukera izeneko programak neurri-sorta bat jasotzen du, 30 urtez azpiko pertsonen enplegarritasuna hobetzeko eta laneratzea sendotzeko, haien lehenengo esperientzia profesionalaren bitartez.

Lanbidek laguntzak eskaintzen dizkie enpresei, beren titulazioarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak kontratatu ditzaten.

[Subvenciones para contratación de personas jóvenes](#)

Lanbidetik ateratako informazioa



2026ko ekainaren 30ean gaurkotutako edukiak.